



350 DANTZARIZ BETEKO DIRA IBARRAKO KALEAK

Dantza eta Mutxikoaren Eguna ospatuko dute gaur goizean Alurr dantza taldeak antolatuta 3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2008-05-31**

VIURTEA 1.448.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Izaro Esnaola ibartarra eta Miren Ezeiza eta Garazi Egiguren tolosar gimnastak Belabieta kiroldegian. A. IMAZ

Barriolak eta Gonzalezek bihar jokatuko dute finalaurrekoa 5



Haritz Mujika bertsotan, atzo, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan. I. GARCIA

Eskualdekoak oso ondo eskolartekoan

BERTSOLARITZA Irazustabarrena, Mujika eta Iguaranek maila ona erakutsi zuten atzo 4

GIMNASTIKA ERRITMIKOAN GOI MAILAKO KIROLARIAK ESKUALDEAN

KIROLA Garazi Egiguren, Miren Ezeiza eta Izaro Esnaola Euskadiko Gimnastika Erritmikoko Txapelketan lehiatuko dira 6-7



HEZIKETA ZIKLOAK
Diseinu Grafikoa
Kirol Ekintzak

ixan nahi duxuna!



www.barandiaranlizeoa.com 943 21 33 55 barandi02@ikastola.net



Erradioterapia zikloa, Inmakuladan

HEZKUNTZA • Inmakulada ikastetxean ziklo berri bat eskainiko dute datorren ikasturtean, Erradioterapiarena. Goi Mailako Heziketa Ziklo hori Gipuzkoan eskaintzen den gisa horretako lehendabizikoa izango

da. Ekimen hau Donostia Ospitalearekin eta Onkologikoarekin batera antolatuko dute. Aurrera begira, Erradioterapiaren arloan dagoen teknikoaren beharra ikusita, arlo hau lantzea erabaki dute elkarlanean. **ESTI EZEIZA**

S Soka motzean

«Azterketak kentzea eskatuko genuke»

JOSU, JOSEBA, MATTIN, ANDER, BEÑAT / Ikasleak

ERREDAKZIOA

Ikasturtea bukatzeaz dago eta honen inguruan mintzatu dira Laskorain ikastolako bi ikasle.

Zer asmo dituzue oporretarako?

Udalekuetara joango gara, Gardeetara.

Zer egiten duzue bertan?

Jolasak egiten ditugu, ibilaldiak.

Zer moduz joan da ikasturtea?

Nahiko ondo joan da, uste baino errazagoa izan da.

Ikasle onak al zarete?

Bai, oso onak.

Zein da gehien gustatzen zaizuen irakasgaia?

Heziketa fisikoa.

Eta zailena?

Garzelerak. Ortografiako lanengatik.

Zer aldatuko zenukete eskolatik?

Ezer ere ez, dena ondo dago. Beno, agian, azterketak ez. Hauek kentzea eskatuko genuke.



L. TERRADILLOS

ARAMBURU

Salgai (Alkiza). Etxe handia lursailarekin, 4.000m², guztiz eraberritua.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Soldadu kalean, sartzeko moduan, (231.400€ / 38.500.000 pztza)
Salgai (Tolosa). Etxebizitza garajearekin, Trinkete auzoan, **Salgai (Tolosa).** Etxebizitza, Nagusia kalean, 1. Igogetuarekin sartzeko moduan eta beste eraberritze eta igogailurik gabeko (193.000€ / 32.000.000 pztza negoziagarria)
Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Martin Jose Iraola kalean.
Salgai (Ibarra). Etxebizitza, San Ignazio auzoan, sartzeko moduan, (211.000€ / 35.000.000 pztza)
Salgai (Tolosa). Izaskun auzoan, (234.400€ / 39.000.000 pztza)
Salgai (Ibarra). Lokala, Euskal Herria kalean,
Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Amarozen (Tolosa) eta Idoiagan (Ibarra).
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza, lurre auzoan, sartzeko moduan.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak. San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batziler Zaldibian.
Alokatzeko (Ibarra). Pabiloi industrialak. Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Iragarki laburrak

LANA

■ **Errotulatzaila.** Pertsona bat behar da errotulazio enpresa batean lan egiteko. Interesa dutenek deitu 943 69 02 94 telefono zenbakira.
■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Harremanetan jartzeko deitu 685 22 70 58ra.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Txakur bat agertu da Orexan. Tamaina ertaina, marroi kolorea eta hanketan ile zuria ditu. Telefono zenbakia: 943 68 20 35.
■ **Katua.** Katu pertsa ilegorria, emea eta 10 hilabetekoa galdu zen Leitzaun larunbatean. Aurkitu ezke-

ro deitu telefonoz: 656 7194 23ra (Iñaki).

SALGAI

■ **Etxea.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesa dutenek deitu 665 70 86 35 telefono zenbakira.
■ **Garajea.** Alegiko kalean, 25 m²-ko garaje itxia, gainean entreplan-ta dauka. Telefono zenbakia: 606 80 22 14.
■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin beharra dago. Interesatuek deitu 657 23 0011 edo 634 9194 82 telefono zenbakietara.



Tolosako, Oria ibaiko uretan jokatuiko dute txapelketa bihar. I. ETXEBESTE

Gipuzkoako infantilen txapelketa jokoan da

Arrantza » Oria ibaian izango da bihar, 09:00etatik aurrera; amuarrainak eta zarboak harrapatu beharko dituzte.

E EZEIZA

Gipuzkoako Amuarrain eta zarboen arrantza txapelketa jokatuiko da bihar goizean. Bost eta hamalau urte bitarteko 60 gaztetxo inguruk hartuko dute parte, eta Oria ibaiko uretan egingo da.

Tolosako Arrantzale elkarteak antolatutako 34. txapelketa da amuarrain kasuan, eta 14.a, zarboenean. 08:00-09:00ak bitartean elkartuko dira Zerkausan partehartzaileak, eta 09:00etan ekingo diote norgehiagokari. Denera hiru ordu irauango du saioak, eta honen ostean, hamaiketako egingo dute, eta opariaren banaketa.

Parte-hartzaileek egin beharreko lana ondorengoa izango da. Amuarrainen kasuan, lehiak irauango duen hiru orduetan, gehienez hiru harrapatu ahal izango dituzte. Zarboen kasuan, berriz, gehienez zazpi. Muga hori ezartzen du Lurralde Federakutza. Irabazlearen derabakitzeko garaian, epaimahaiaik neurtuko duen gauzetako bat da, arrain kopuru hori arrantzatzeko igaro duten denbora. Hau da, zenbat eta azkarrago harrapatu, irabazteko aukera gehiago.

Ondoren, amuarrain eta zarbo horien pisua eta luzera neurtuko dituzte, eta horren arabera, ebatziko dute zein den garailea.

Antolatzaileek azal dutakoaren arabera, «arrantzale gaztetxo ugari daude, nahiz eta lehen, agian, gehiago izan. Horren arrazoietako bat da, espezie gutxiago aurkitzen direla orain».

Triatloilariek bihar hasiko dute zirkuitoa

Triatloiak » Donostiako XXIII. Onditz omenezkoak jokatuiko da; aukera ugari dituzte TTT-lparker taldeko kideek.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan hasiko da Triatloi denboraldia. Joan den asteburuan hasi behar zuen, baina antolokuntza arazo batzuegatik atzeratu egin da zirkuituaren hasiera. Bihar txapelketako lehen proba jo-

katuko da Donostiako XXIII. Onditz omenezkoan. Bertan izango dira Tolosaldeko Triatloi Talde-Iparker talde kirolariak. 500 partaide inguru espero dira distantzia olimpikoan (1500m-40km-10km) jokatuiko den proban.

Gauzak ongi joanez gero talde-kakoan lehen hamar talde onenen artean sartu daiteko eskualdekoa. Hasiera batean helburu zaila dirudi probak duen maila internazionala medio, baina Senperen lortutako 6. postuak horretarako bidea irekitzen die.

Mutil gazte bat behar da Asteasun tailer mekaniko baterako (18-22 urte).
Telefona: 652724169

Dantza eta Mutxikoaren Eguna ospatuko dute gaur

Ibarra » Alurrek antolatutako ekitaldian 350 dantzari elkartuko dira goizean. Dantza saio ugari eskainiko dituzte.

ERREDAKZIOA

Gaur Ibarra Dantza eta Mutxikoaren Eguna ospatuko dute eta honetan 350 dantzari ariko dira. Hauek, herrian zehar dantzaileak eskainiko dituzte. Zortzi herri ezberdinetakoak hurbilduko dira Ibarra, eta eskualdeko asko dira tartean, zehazki, zazpi, Bera da Tolosaldekoa ez den bakarra.

Alurr dantza taldeak antolatuko du ekitaldia eta parte-hartzaileak Berastegi, Anoeta, Irura, Alegia, Altzo, Berrobi, Bera eta Ibarra dantzariak dira. Gaurko egitarau oparoa prestatu dute Alurrekoek, eta protagonista, noski, dantza izango da.

Egitaraua goizean hasita

10:00etan emango diote hasiera, eta Emeterio Arreseko parkean elkartuko dira dantzari guztiak, gutzira 350. Bertan, *Agurra* dantzatu dute. Ondoren, talde bakoitzak bi dantza eskainiko ditu.

Hamaiketako egingo dute dan-

tzariak bertako parkean, gero egingo duten kalejirarako indarrak hartzeko: Kultur Etxe aldera eta Zaldune auzoraino bertaratu dute, eta han ere talde batzuk dantzatu egingo dute.

Berrir bueltatuko dira Emeterio Arreseko parkera, gainontzeko taldeek dantza batzuk eskainiz. Bukatzeko, dantzari guztiak elkarrekin Fandango eta Arin arina dantzatu dute.

Taldeek eskainiko dituzten dantzen artean honako hauek izango dira: *Bedaio*, *Zinta Dantza*, *Txontxongilo*, *Txantxo dantza*, *Axuri beltza*, *Ikurrin dantza*, *Peio Joxepe*, eta irakasleek egun honetarako lana eta ilusio handiz asmatutako koreografia berriak.

Goiz osoan zehar, guraso talde batek paella handi bat prestatuko du gero bazkaltzen geldituko diren dantzari, musikari eta irakasle guztiak bertan jan dezaten. Bazkaria Emeterio Arrese parkean izango da.

Mutxiko Eguna

Bestalde, Mutxiko Eguna ere ospatuko dute gaur, eta horretarako ikastaroetan aurreko larunbatean parte hartu zutenak eta nahi duen guztiak, *Mutxikoa* dantzatzeko aukera izango du.

Kalean euskal jantziekin

Egun honetan herritarrei ere parte hartzea nahiko lukete Alurrekoek, guztiak festara euskal jantziekin hurbiltzeko eskatuz, «dantzariak biltzen dituen egun hau gehiago girotzeko eta egun handiagoa izateko».

» EGITARAUA

■ **10:00.** Emeterio Arreseko parkean elkartuko dira dantzariak eta *Agurra* dantzatu dute.

■ **Ondoren.** Talde bakoitzak bi dantza eskainiko ditu.

■ **11:00.** Gosaria dantzari guztientzat Emeterio Arreseko parkean.

■ **Ondoren.** Ondoren kalejiran joango dira Kultur Etxea eta Zaldune auzoraino, bertan talde batzuk dantzatu.

■ **Gero.** Berrir bueltatuko dira Emeterio Arreseko parkera, gainontzeko taldeek dantza batzuk eskainiz.

■ **Bukatzeko.** Dantzari guztiak elkarrekin Fandango eta Arin arina dantzatu dute.

■ **Oharra.** Guraso talde batek paella handi bat prestatuko du, bazkaltzen geldituko diren dantzari, musikari eta irakasle guztientzat. Bazkaria Emeterio Arrese parkean izango da.

Mirandaolara ibilaldia antolatu du Udalak

Altzo » Bereziki jubilatuentzat izango da Legazpirako ekainaren 8ko bidaia eta asteartera arte eman daiteke izena.

ERREDAKZIOA

Ekainaren 8rako Altzoko Udal Gizarke Zerbitzuak jubilatuentzako ibilaldia antolatu du. Mirandaola parkera joango dira besteak beste, iturriak eta ibilbide atseginez gozatzera. Interesa dutenek izena

Altzoko udaletxean eman behar dute asteartera baino lehenago. Gutzira 25 euro ordaindu behar da eta autobusa 10:45ean abiatuko da Altzoko plazatik.

Hainbat leku bistatu ondoren, Mirandaola jatetxean bazkalduko dute gero.

16:00etan Artzantzaren Ekomuseoa eta Ogiaren Txokoa bisitatu dute eta bertan. Errotariaren eta ogiaren kontsumoa omen-du nahi ditu Ogiaren Txokoak: horrela, ogia labetik atera arteko prozesua erakusten ditu.

Udalak EAE-ANVren mozioa onartu du

ERREDAKZIOA

Amezketan izandako azken ohiko bilkuran EAE-ANVk *Euskal Herriaren Demokrazia Zero* mozioa aurkeztu zuten (ostegunean), eta bildutakoek adostasuna adierazi zuten denen aldeko botoekin.

Mozio honetan zera onartzea eskatzen zen: «Udal hau ez dago herriak aukeraturiko ordezkariak legez kanporatuak izatea onartzeko prest». Era berean, «Euskal Herriar orori dagokigu gure herriaren etorkizuna erabakitzea».

Hala, «herritarrek aukeraturiko EAE-ANVren zinegotziak, eragile eta mintzakide politikoak gisa

onartzen ditu». Aldi berean, Udal honek herriari aitortzen dio ziletasun guztia eta bakarra. Hortaz, 2007ko hauteskundeetan, «lege arrotz eta neurri errepresiboen gainetik, herriak aukeraturiko ordezkari guztien aitortza exijitzen du, udalerrri guztietan herritarren borondatea errespetatua izan dadin».

Hori horrela izan dadin, alderdi politikoei LOREG delako 182.2 artikulua «aplikatzeko urrats guztiak eman dezatela eskatzen diegu, herriak aukeraturiko ordezkariak aitortza eta eskubide guztiak bereganatu dituzten».



lazio jaietan, Ibarra dantzarien saioa une batean, Fandango-Arin-arin dantzatzen. XANTOS

Hitzako emaitzak

ERREDAKZIOA

Gaur Berastegin V. Hitz Txapelketako benjaminen arteko partidak jokatu dituzte 18:00etan. Kasu honetan, eskualdeko bikote bakarra ariko da: Arruti-Astigarraga Erniopeko jokalariek. Hauek Sagarzazu-Mujikaren kontra ariko dira eta lehen partidari izango dira.

Kadeteen artean hauek izan dira emaitzak: Urbietia 18, Asurabarrena 6; Loban 18, Lodidi 11; Santxo 17, Irubarren 18; azkenik, Lujanbio 3, Barberena 18. Irabazleak final zortzirenetan ariko dira.

Seniorren artekoetan hauek eman dira: Beitia-Galarraga, 19; Lazkoz-Keralt 22, eta Andreu-Irureta 22, Jauregi-Gomez 16.

U Urteurrena

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

I. urteurrena
LOINAZ URRESTARAZU LAZKANO
1975/05/27 - 2007/05/31.



Eskerrak eman nahi dizkiegu gure ondoan egon zareten guztiei. Askok lagundu diguzue, eskerrik asko: koadrila, Herri Kirol Taldea, Herri Kroseko antolatzaileak, LAB sindikatua, Ezker Abertzalea, lagunak...

IDIAZABAL-LEGORRETA
2008ko maiatzaren 31

Idiazabalgo eta Legorretako familiak



Aratz Irazustabarrena alegiarrak, bertso saritua abesten. I. GARCIA

Eskualdekoentzat emaitza oso onak Eskolarteko Bertsolari Txapelketan

Irura » Aratz Irazustabarrena, Haritz Mujika eta Oihana Iguaran bertsolariak sariak lortu dituzte.

IMANOL GARCIA

Jende ugari izanzen atzokoan Iruan jokaturako Gipuzkoako 28. Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finalean, Kilometroak 2008ren ekitaldien baitan, Gipuzkoako Ikastolen elkarteak antolatuta, besteak beste Irurako Udalarren eta Irurako Ikastolaren laguntzarekin, eskualdeko bertsolariak emaitza oso onak lortu zituzten.

Alde batetik, Aratz Irazustabarrena alegiarrak, bertsopaparen sailean eta LH3 eta 4 mailetan txapela lortu zuen. Idatzizkoetan ere, Oihana Iguaran amasarrak DBHko bigarren zikloan aipamena lortu zuen. Bat batekoan, txikien mailan, 14 urte artekoetan, Goierri-Asteasu taldekoek lortu zuten txapela, tartean Haritz Mujika asteasuarrak. Handien mailan, 14 eta 18 urte bitartekoetan Oihana Iguaranek parte hartzen zuen baina ez zuen sariarik lortu. Txapela Ane Labaka lasartearrak eraman zuen eta bigarren Asier Azpiroz zubietarra izan zen.

Besteak beste, Irurako alkatea Marimi Ugaldek eta Irurako Ikastolako lehendakaria Sorkunde Irarik sariak banatu zituzten.



Haritz Mujika asteasuarra, txapela jantzi ondoren bertsoa abesten. I. GARCIA



Oihana Iguaran amasarra, txapelketaren une batean. I. GARCIA

Kantuaren asteburua izango da herrian

Villabona » Gaztetxoan abesbatzek, tartean Eresargikoak, gaur eta Oskorriren 'The Pub Ibiltaria XII', bihar.

I. GARCIA

Kantuak protagonismoa hartuko du asteburu honetan Villabonan. Herriko Eresargi Txikik eta Eresargi Tipi abesbatzek eta Arrasateko Goikobalu Gazte eta Goikobalu Txiki abesbatzek kontzertua emango dute gaur, 19:00etan, Gurea aretoan. Bihar Oskorri eta bere The Pub Ibiltaria XII proiektuaren txanda izango da. Emanaldia ere 19:00etan izango da, Gurea aretoan, eta helduek 6 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 3 euro.

Arantxa Padilla Eresargi Txiki eta Tipi abesbatzen arduradunak, azaltzen duenez, gaurko emanaldia Arrasateko abesbatzekin egiten duten elkartruke bat da: «Villabonako emanaldiaren ondoren, hurrengo asteburuan Arrasatera joango gara eta bertan egingo dugu beste kontzertu bat». Bi herrietako abeslariak batera zenbait kantu

abestuko dituzte eta beste batzuk herri bakoitzekoak. Batera abestuko dituzte, esaterako, Xabier Sarasolak moldatutako bi euskal abesti. Guztira 150 bat abeslari izango dira oholatza ginean.

«Jendea da protagonista»

Biharkoan abesti herrikoak izango dira protagonista eta horiekien batera, Gurea aretoara joaten den jendea bera. Oskorri taldeko Xabier Zeberio tolosarrak dioenez, The Pub Ibiltariaren egitasmoan «emanaldira etortzen direnak dira abestiak kantatzen dituztenak. Pantaila handi bat jartzen dugu eta bertan azaltzen dira abestien letrak. Guk nolabait musika jartzen dugu eta denon artean abesten dugu».

Sortzen den giroa «berezia» dela dio musikari tolosarrak. Gainera, musika instrumenturen bat jotzen duen edonor animatzen dute oholatza gainera igo eta beraiekin parte harztera. Eresargi Txiki abesbatzakoek ere parte hartuko dute Oskorriren emanaldian. Bilbon, San Tomas egunean zuzenean grabatutako diskoaren kantuak abestuko dituzte Gureara joaten direnak.

62. urteurrena ospatuko du Behar-Zanak

ERREDAKZIOA

Villabonako Behar-Zana elkarteak bere 62. urteurrenarena ospatuko du asteburu honetan. Gaur, 11:00etan, alebin eta benjaminen pilota partidak izango dira Errebotte plazan. 17:00etan, joko garbiko bi partida egingo dituzte. 18:00etan, buruhandiak eta erraldioak, Loatzo musika eskolako ikasleek alaiturik. 19:00etan hildako elkarteakideen aldeko meza Pa-

rrokian. 20:00etan, bazkideentzako afaria elkarrean. 23:00etan dantborrada Incansables txarangarekin. Ondoren eta 02:30ak arte elkarrean dantzaldia eta jaigiroa Incansables txarangak alaiturik.

Bihar, 09:00etan, txistularien diana egingo dute. 11:00etan, errebotte partida Behar-Zana eta Oiarzungo taldeen artean. 14:30ean bazkaria egingo dute elkarrean, gonbidatuentzat bakarrik.

Laburrak

Futbol taldeko kadeteek txapelketa jokoan, gaur

VILLABONA » Herriko futbol taldeko kadeteek izugarriko denboraldia egiten ari dira eta gaur dute borobiltzeko aukera. Bere mailako Gipuzkoako txapelkunak erabakiko duen partida jokatu dute, 11:00etan, Beasaino Igartzeta zelaietan. Arrasateko taldea izango dute aurkaria norgehiagoka horretan. Bi taldeek dagoeneko lortu dute mailaz igotzeko txartela eta datorren denboraldian ohorezko mailan ariko dira.

Izen-ematea zabalik pilota txapelketetarako

VILLABONA » Behar-Zana kirol elkarteak antolatuta, irekita dago Santio festetako pala, eskuz federatu gabeen eta frontenis txapelketetako izen ematea. Txapelketa Aduna, Larraul, Zizurkil, Asteasu, Alkiza, Anoeta eta Irurako herritarrei ere zabaldua dago. 16 urteko gorako neska zein mutilak parte hartu ahaliko dute. Izen-ematea Behar-Zana elkartearen egin daiteke ekainaren 6ko 20:00ak baino lehen.

Bihar jokatu- dute finalaurrekoa Barriolak eta Gonzalezek

Pilota » Barriolak irabaziz gero, herri bereko 2 pilotarien arteko hirugarren finala izanen litzateke 2 leitzarren artekoa.

NAIARA GARZIA

Abel Barriolak eta Sebas Gonzalezek bihar jokatu dute buruz buruko txapelketaren azkeneko finalerdia, astebeteko atzerapenarekin. Pilotariek herenegun egin zuten material hautaketa eta bai bataik bai besteak Cipri etxeko pilotak aukeratu zituzten, nahiz eta azkenaldian txapelketetan gero eta gutxiago erabiltzen diren. Gonzalezek irabaziz gero buruz buruko beste final bat izanen da askorentzat, baina Barriolak irabaziz gero, berriz, final berezia izanen da askorentzat.

Finalerdia

Julian Iparragirren pilotan adituaren ustez, «finalerdia oso irekia dago, 2 pilotariak oso momentu onean daude, baina Sebastianen lesio hori dela eta uste dut Abel Barriolak aukera gehixeago dituela. Sebastian lesio horrengatik geldirik egondu da aurreneko 10 egunetan eta orain berak ehuneko ehuneko dagoela esaten du, baina pilo-

tari bat horrela lesionatzen denean normalean zaila izaten da ehuneko ehuneko ateratzea».

Biharko partidari dagokionez, ez duela oso partida piloteatua espero dio Iparragirrek. «Batik bat Sebastianek bera airez asko sartzen da, airea sartzen duen pilotariaren aurka tanto luzeak gutxiago izaten dira, normalean. Partida bizia espero dut, baina ez dut uste pilotakada gehiegi izanen denik».

Gonzalez, ezkerria

Herenegun egindako material hautaketan, Gonzalezen lesioa gain, pilotari ezkerria dela eta, honen inguruan ere mintzatu ziren. Iparragirrek azaldu duenez, «normalean ezkertiar oso pilotari gutxi izaten dira, eta hauen kontra oso gutxi jokatzen da. Ezkerren kontra jokatu izandu du Abelek. Xalaren kontra uste dut partidaren bat edo jokatu zuela lau t'erdian baina ezkertien kontra orohar oso gutxi jokatzen da». Horrek, beraz, zailtasun puntu bat ematen dio partidari. «Gutxiago ezagutzen da aurkariaren jokoa, bere kontra gutxiago aritzearekin eta orduan zailagoa bezala egiten da. Ezkertien aurka gutxiago jokatuta joaten dira eta orduan diferenteago jokatzen da, askotan pilotak ezker pareta jo eta efektu ezberdina hartzen du



Beigi guztiak Abel Barriolarengan jarriak daude, faboritoa izateaz gain irabaziz gero finala berezia izanen baita. N.L.

eta ezberdintasuna hori da, eskuinarekin eman edo ezkerarekin eman pilotakada batzuetan frontoiean bertan ezberdin ateratzen da, baina Abel teknikoki oso pilotaria da eta ez dut uste arazorik izanen duenik».

Bi leitzar finalean?

Buruz burukoan soilik 2 aldiz gertatu da finala herri bereko 2 pilotarien artekoa izatea. «Nik aurrenekoa ez nuen ezagutu, atanotarrak ziren, Atano III.a eta Atano VII.a, duela 60 urte inguru, eta gero beste partida bat jokatu zutena biak herri berekoak izanda ziren Gorosti-

za eta Garziariño IV bizkaitarrak. Partida ikusteko aukera izan nuen eta Gorostizak irabazi zion Garziariñori. Hura izan zen bigarrena eta ea zorte pixka batekin Abelek irabazten duen eta hirugarrena leitzarrek izaten duten». Bai Iparragirrentzat bai leitzarrentzat, orohar, oso final polita litzateke, horrela gertatuz gero. «Hori oso gutxitan gertatzen da eta nik uste historikoa izango litzatekeela, izango litzateke gauza ikaragarri bat, kontutan hartuta Leitza ez dela herri handi bat eta 2 pilotariak finalean herrikoak izatea. Ni ere ilusio ikaragarriarekin nago, gai-

nera aurrean da aukera eta auskalo, behar bada gehiago ez da tokatuko, eta hori herrirako ikaragarria izango litzateke eta ez herrirako soilik, pilota munduan gabiltzanontzat historirako geldituko litzatekeen gauza bat litzatekeelako».

Barriolak, faboritoa izanik eta finalean parte hartzeko aukera izanik, «zama» hori gainean duela dio Iparragirrek. «Abelek Sebastianek baino presio handiagoa du. Asteazkenean berarekin egon nintzen eta berak kristoren ilusioa dauka, eta gainera faboritoa denez bihar-ko partidari zama hori Abelek berak eraman beharko du».

Aurrerakoak, Herriartekoan

Pilota » Gaur ere Herriartekoan hartuko dute parte Irurtzunen aurka, baita beste zenbait txapelketetan ere.

N. GARZIA

Herriarteko Txapelketako beste jardunaldi bat jokatu dute Aurrerako pilotariek gaur, 17:00etan, Irurtzunen. 4 partida jokatu dituzte, bakoitza maila batean.

Mikel Sagastibeltza Lasarteketa Ander Garziarenak hasiberrien mailan jokatu dute, Xabier Jaunarenak eta Anartz Olanok haurkategorian, Ander Igartuak eta Jon Jaunarenak jubeniletan eta Aritz Sagastibeltzak eta Mikel Iriartek nagusietan.

Bestalde, gaur bertan Nafar Jokeetako finalak jokatu dituzte Lizarran eta Burlatan. Lizarran Anartz Olanok eta Joxerra Aldare-



Doneztebeko pilotarien aurka, Amazabal Pilotalekuan. N. GARZIA

giak jokatu dute, Uharteren aurka eta Burlatan, Mikel Sagastibeltza Eguesek eta Oier Igartuak, bertako Oberenako pilotariek aurka.

Gaur ere Uharteko Txapelketan hartuko dute parte Aurrerakoek, Ibai Gil eta Mikel Onsalo Uharte Arakilen aritzeakoak baitira, goizeko 10:00etatik aurrera.

Lizarrako Txapelketari dagokionez, bihar 3 partidetan hartuko dute parte Aurrerako pilotariek: Aldaregiak eta Xabier Jaunarenak, Anartz Olanok eta Mikel Hermandorenak (2 bikote hauek haurkategorian), eta Sagastibeltza Eguesek eta garziarenak, hasiberrietan.

Zinema euskaraz **berria**rekin

GAUR
filma DVD formatuan

nómadak tx

filma

izandako desio batetik abiatzen da. Txalaparta, euskal kulturaren sinboloa eta hotsa den hori, pertsonen topaleku ez ezik, kulturen artekoa ere izatea nahi dute. Desira horrek bultzatuta, bi protagonistek planetako lekuri ezzagunenak bidaiatzen dute ahoz eta seinu ezberdinen bida. Indiako adibatekin, Laponiako samiekin, Mongoliako estepako biztanleekin, eta herri sahararekin batera biziko dira. Topaldi bakoitza paregabea izango da. Ezusteko eta esperientzia bakarrez josia.

+ 6,95€

OHARRA: Irteerak bukatu arteko eskaintza



Garazi Egiguren, Miren Ezeiza eta Izaro Esnaola entrenamenduan irakaslearen agindua entzuten Ibarrako Belabietako kiroldegian. ASIER IMAZ

Garazi Egiguren eta Izaro Esnaola Gipuzkoako txapelkun eta txapelkunordeak dira kadeteetan, Miren Ezeiza infantiletan bigarrena eta hirurak Euskadiko Gimnastika Erritmikoko Txapelketan egongo dira.

Gipuzkoakotik Euskadikora

ASIER IMAZ

Airean musika, lurrean tapiz bat eta oinak, itsasoaren gainean dantzan bezala. Uztaia eskuetatik airera, airetik pilota eskuetara, soka eta mazak haruntza eta honuntzagorputzeko atalak bailiran.

Burua eta gorputza dantzan, estropozu egin eta lurrera: irrifarrea; «entrenamendua da»; irakaslearen agindua; ikaslearen hausnarketa; eta berriro ere airean musika, lurrean tapiz bat eta gainean oinak...

«Gipuzkoatik Euskadira»

Ibarrako kiroldegian astean hirutan gimnastika erritmikoko klaseak egon ohi dira, bertan aurkitzen baita Belabietako Gimnastika Erritmikoko Eskola. Txikienez jolas eginez ikasi egiten dute eta hain haur ez direnek neurri batean ikasiz jolas edo «gozatu».

Miren Ezeiza (Tolosa, 1994), Izaro Esnaola (Ibarra, 1993) eta Garazi Egiguren (Tolosa, 1992) Belabietako hiru gimnasta dira. Gipuzkoako Txapelketan emaitza bikainak lortu ostean, Euskadiko Txapelketa prestatzen ari diren hiru ikasle. Irakasleari baimena eskatu ondoren, euren entrenamenduetan eta gimnasiaren inguruko hala-moduzko galderei erantzuten hasi dira.

Lehenik aurkezpen txanda: Garazi Egiguren besteak beste, 2007. urtean Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketa izan zen. Aur-

ten Gipuzkoako Txapelketan lehen postuan geratu da kadeteetan.

Egigurenen alboan, bigarren postuan, Izaro Esnaola ibartarra igo zuen podiumera Gipuzkoako Txapelketan. Bi gimnastek ekainaren 8an Euskadiko Txapelketara jokatu dute Tolosan.

Miren Ezeizak berriz badaki taldekazeren Euskadiko Txapelketan hirugarren postuan geratzea. Banaka, aurten bigarren postuan geratu da Gipuzkoakoan. Asteburu honetan Euskadiko Txapelketan parte hartuko du Donostian infantilen mailan.

Txapelketak

Etorkizuna begi bistan izan arren, iragan hurbila gogoratu du Garazi Egigurenek txapelketen funtzionamendua azaltzeko: «Gipuzkoako txapelketan lehen fasea instrumentu batekin egiten duzu. Hor emaitza bat ateratzen duzu eta ondoren bigarren fasean, beste instrumentu batekin egiten duzu beste ariketa bat. Bi faseetako emaitzekin media bat egiten da eta Txapelketara sailkatzen zara edo ez. Gipuzkoako finalean egun berdinean bi aparatuekin egiten dituzu ariketa eta lehen bosten artean geratuz gero, Euskadikora pasatzen zara».

Euskadiko Txapelketara begira hirurak gauzak argi dituzte, «ezin duzu postu baten bila joan». Miren Ezeizak maila handia egoten dela aipatzen du, bizkaitarrena azpimarratuz. Izaro Esnaola ere ados

dago, «helburua ahal dudan ondoren egitea izango da, nire buruarekin gustura gelditzea gustatuko litzaidake, hortik aurrerakoa ez dago guztiz norberaren esku» aipatzen du ibartarak.

Entrenamenduak

Kirol guztietan bezala, txapelketara iristeko gogor lan egin behar izantzen da, ikasturte hasieratik gainera. «Asteazken bost orduz aritzen gara, hiru egunetan zatituta»

dio Esnaolak. Miren Ezeizak bere adineko gimnasta askok ordu gehiago sartzen dituztela aipatzen du, baina «ondo entrenatzen baldin baduzu» bost ordu nahikoak direla gehitzen du. Garazi Egigurenek bere aldetik jarrerari garrantzi handia ematen diola onartu du: «etekinik atera gabe ere orduak egon zaitezke entrenatzen, nire ustez norberak jartzen duen gogoak asko esan nahi du. Gure kasuan kurtso hasieran fondaoharitzeko ariketak egiten ditugu. Gero dantzekin hasten gara lanean eta lehiaketak hurbiltzen direnean musikarekin ariketa zehatzak lan-tzen hasten gara».

Minutu t'erdiko lana

Banakako lehiaketetan hilabete luzeetako lana minutu eta erdian aurkeztu behar izaten dute gimnastek. Jendaurrean, urduritasunak urduritasun eta presioak presio: «Askotan urte guztiko lana minutu eta erdian erakutsi behar duzu. Urduritasunak eragin handia dauka eta zure burua lasaitzen ikastea beharrezkoa da, izan ere, minutu eta erdian gauza asko erakutsi nahi dituzu; ondo egin nahi duzu ariketa, lasai azaldu nahi duzu... nire kasuan tentsio izugarri sentitzen dut» dio Egigurenek.

Izaro Esnaolak Gipuzkoako azken Txapelketan berari gertatua aipatzen du tentsio horren adibide bezala: «ariketa egiten ari nintzala, uztaia joan egin zitzaidan. Une batean txurien gelditu nintzen, zer egin ez nekiela. Ondoren erreakzionatu egiten duzu, uztaia hartu eta ariketarekin jarraitzeko». Miren Ezeizak zerbait gaizki egin ezkerro erraza izaten da horretaz jabetzea, «nire buruarekin haserretu egiten nahiz zerbait gaizki



Gipuzkoako Txapelketan emaitza bikainak lortu ondoren Belabietako hiru gimnastak Euskadiko Txapelketan dira. A.L.

irtetzen zaidanean eta ondorengo guztia gaizki ateratzen zait. Hala eta guztiz ere akats bat egin arren ariketa guztia geratzen dela ikasi behar dugu, ez dela dema amaitzen akats batekin».

Irakasleen lana

Hirurek irakasleen lana azpimarratu nahi izan dute txapelketarako bide honetan eta egiten ari diren lanaren inguruan: «zorte handia izan dugu irakasle hauekin. Oso ongi prestatuak daude. Erakustez gain gimnastikako epaile ere bada dira eta hori abantaila handia da, ariketa egokiak aukeratzeko unean. Horretaz gain, gure gorputza zaintzeaz asko arduratu dira, jarraipen bat eginaz ikasle bakoitzari. Nire kasuan bizkarrarekin arazoak izaten nituen eta ariketa bereziak jarri zizkidaten hobetzeko. Txonkatilaren kasuan ere berdin gertatu zait eta asko hobetu dute erei esker». Miren Ezeizak labur baina argi azaldu du irakasleen in-

guruaren pentsatzen duena: «Nire kasuan Ibarrara etortzeko arrazoietako bat hori izan zen». Izaro Esnaolak epaile eta irakasle izatearen garrantzia azpimarratu zuen, «urtero gauzak aldatu egiten dira eta eurek badakite zeintzuk diren berrikuntza horiek eta zer egin behar den puntu gehiago lortzeko».

Sarrera eta agurra

Bitxikerien inguruan berriz, oin puntetan egin beharreko sarrera, agurra eta abar aipatzen dituzte. «Sarrera oin puntetan egitearena ez dakit zergatik den egia esan. Niri ez zait batere gustatzen, oso luzea egiten zait lekura iristea. Sari banaketan ere agurtu, bi muxu eman...» dio Garazi Egigurenek ez oso konforme. Ezeizak bere aldetik pragmatismora jotzen du, «Ni ere ez naiz gustura sentitzen momentu horietan, denak zuri begira daude eta zu ea oina ongi jartzten dudan pentsatzen, baina bestek egiten dute eta ez baduzu egiten...».



Miren Ezeiza pilotarekin entrenamenduan. ASIER IMAZ

Azken Txanpa!



» Iritzia

Jon Altuna

Hiru partida baino ez dira gertatu denboraldi hau amaitzeko. Hamaika hilabeteko denboraldi luzea, gorabehera handikoa eta oraindik lanak amaitu gabe dituguna. Gure artean askotan esan ohi dugun esaldi bat honakoa izaten da: denboraldi bat gehiago betea

baina bat gutxiago gure futbol bizi-tza amaitzeko. Hala ere, aurtengoa oso luze ari da egiten eta taldea honen amaiera irrikaz ari da eskatzen. Hori bai, oportetara gustura joateko, lanak ondo eginda joan nahi dugu eta puntu bakarrean faltan gaude. Jokatu beharreko hiru partidua Albacete, Numantzia eta Sporting-en aurkakoak dira. Espero dugu lehen bi partiduetan falta zaigun puntua lortzea eta azkenerako ez uztea lanak. Izan ere, azkenengo partidua Realuz, gorabehera handikoa eta ikusten dugu, igoera postuetan berearekin lehian dagoen Sporting-en aurka Realarentzat mesedegarri izan daitekeen emaitza bat lortuaz.

Aspalditik gabiltza 50 puntuak gertu daudela, baina ezin dugu azken garaipen hori lortu eta berdinketa lortuaz, puntuz puntu, pauso txikiak emanez ari gara hubiltzen horregatik ea hurrengo bi partidetan helburua guztiz gauzatzen dugun.

Pelotari buruz zer esan, sorpresa txapelketatza har dezakegu aurtengoa. Azitia eta piztia kalean, eta Oinatz finalean inorrek espero ez zuenean. Normalean bi leitzarrek jokatu dute finala, beraz, leitzarrek gustura egoteko moduan dira. Hala ere, esan beharra dago, txapelketa honek normaletik gutxi duenez edozer gauza pasa daiteke.



Gaur eta bihar garagardoa erruz

IBARRA • V. Garagardo Festa herenegun inauguratu zuten zinta mozketa eta lehen garagardo dastaketarekin. Aurtengoa Alurr dantza taldea, Ekaitz Aramendi, Eider Ijurko eta Ion Mintegiaga omendu zituz-

ten. Bihar itxiko ditu Garagardo Festak karpako atek baina bien bitartean ekitaldi ezberdinen artean, gaur irrintzi txapelketa entzuteko aukera egongo da bertara gerturatzuz gero. JOSUOZAITA



Etixeraten konzentrazioan ertzainak

LEABURU-TXARAMA • Etxeratek deituta atzo egin ziren hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzeak. Leaburun azken ostegunetan egiten dute eta orangoan Erztzaintza agertu zen, baimenik eskatu gabeko elkarre-

taratzea zela esanez. Bertan elkartu ziren herritarrek 19 lagun baino gutxiago elkartuko zirenez, baimenik eskatu beharrik ez zutela erantzun zien. Nortasun agiri bat erakutsi ostean elkarretaratzea egin zuten. A.I.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Zutela: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Belauntza.** Hamaika Bertute taldeko Eneritz Zabaleta lapurtarra eta Ainhoa Agirreazaldeggi gipuzkoarrarekin bertso afaria, Herriko Taberna-Jatexean. 18 euro ordaindu beharko dira, eta izen-ematea udaletxean, Tabernan edota Kultur Etxean egin ahalko da.
- **Ibarra.** Dantza eta Mutxikoaren Eguna: 10:00etan Emeterio Arresen elkartuko dira dantzariak; 11:00etan gosaria; ondoren, kalejiran Kultur Etxe eta Zaldune auzora joango dira; jarraian, Emeterio Arresen dantza saioa. Bukatzeko guztiek (350 inguru) fandango eta arin arina dantzatzuko dute.
- **Ibarra.** Garagardo Festa plazan, 18:00etatik aurrera irekita. 22:00etan, Arkada eta Nunbait taldeen kontzertuak Gaztetxean.
- **Tolosa.** Tolosako Musika Banda eta Arimaz soka orkestraren kontzertua Zerkausion 19:00etan, XIV. Musikaria astearen barruan.
- **Tolosa.** Omar Faruk Tekbilek musikari turkiarraren kontzertua, 20:30ean, Leidor aretoan.
- **Tolosa.** Pasaiako antzerki taldeak *Tres en una* antzezlana eskainiko du Amarotzen 20:00etan, X. Antzerkiaren Astean.
- **Tolosa.** Eskolarteko II. Batel Topaketa: 12:00etan Tolosaldeko ikastetxeetako arraunlari gazteen erakustaldia (DBH maila), 12:45ean Tolosako Bandera eskuartzeko finala sailkatutako lau batelaren artean (Batxilergo maila) eta 13:00etan bandera eta oroigarrien banaketa.
- **Tolosa.** Roberto Jauregiren

omenezko VI. Hegats Igeriketa Txapelketa, Usabal kiroldegian 10:30ean eta 16:30ean.

- **Tolosa.** Gipuzkoako Amuarrain eta Barbo Arrantza Txapelketa izango da bihar, Oria ibaian, Zerkausi inguruan, benjamin, alebin eta infantil mailetan. Izen-ematea, Usabal kiroldegian.
- **Tolosa.** Arteta-Uharte Arakil

mendi irteera antolatatu du Alpino Uzturrek ekainaren 8rako, Treku (1.265 m), Leziza (1.350 m) eta Beriain (1.493 m) igoz (7 ordu inguru). Izen-ematea, elkarrean edo 943 652789 zenbakian.

- **Tolosa.** Vignemale mendira irteera antolatatu du Oargi elkaratek ekainaren 6tik 8ra. Izen-ematea, 637 830380 telefono zenbakian.

Jaiak

- **Txarama.** Gaur: 11:00etan suzuria, 11:30ean Leaburu-Txaramako dantzari gazteen dantza saioa, ondoren toka txapelketa eta pintxo lehiaketa; 16:00etan haur jolasak eta txokolatada; 17:30ean mus txapelketa azkarra karpan; 21:00etan herri afaria bertsoarietara eta trikitalariekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Zorionak!

Aitor eta Aloña. Zorionak eta ondo pasa familiaren partetik. Segi horrelaxe urte askoan.



Zorionak!

Jose Ignazio eta Elena (Tolosa). Gaur urrezko ezteiak. Ondo pasa ta muxu bana familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

zeu
ileapaindegia
ileapaindegi berritua

har ezazu zure txanda
943 671 427



santa klara 8. Tolosa



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



ziklo guztiak euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- **Mekanizazio bidezko Produzioa** (ikasi eta lan) 3 urtetan lan finko batekin
- **Informatika Sistemien Administrazioa**
- **Administrazio eta Finantzak**
- **Eraikin eta Prozesu Instalazioen Mantenimendu eta Muntadura**
- **Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak**
- **Metal Eraikuntza**

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra